

KONTROL MOZIOA

EUSKARAZKO ANTZERKI ESKAINTZARI BURUZ

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko martxoaren 17an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

DFERIA, Donostiako Arte Eszenikoen ferian, azken bost urteetan programatutako antzerki eskaintza aztertu dugu eta deigarria iruditu zaigu euskarazko antzerki eskaintza urria.

2021. urtean 20 antzerki saio eskaini ziren, horietako 17 izan ziren gaztelaniaz, 1 hitzik gabekoa eta 2 euskaraz.

2022. urtean 22 antzerki saio eskaini ziren: 20 gaztelaniaz, 1 hitzik gabekoa eta bakarra euskaraz.

2023. urtean 22 antzerki saio eskaini ziren: 19 gaztelaniaz, 2 hitzik gabekoak eta bakarra euskaraz.

2024. urtean 17 antzerki saio eskaini ziren: 13 gaztelaniaz, 2 italieraz (gaztelaniaz azp titulaturak), hitzik gabeko 1 eta bakarra euskaraz.

Aurtengo programazioan 15 antzezlan eskaintzen dira, 14 gaztelaniaz eta bakarra euskaraz.

Martxoko batzordeetan zinegotzi ordezkariari galdetu genion gai honen gainean eta azaldu zigun merkatura oso bideratuta dagoen feria bat dela eta helburu nagusia euskal konpainiek beraien lana kanpoko programatzaileei erakustea dela. Horregatik hauetako askok gaztelaniaz antzeztea erabakitzen dutela.

Gainera, azken urteetan dFeria merkatura bideratuta egonik, herritarrengandik urrun gelditzen dela ondorioztatu dute eta hori aldatzeko asmoz eskaintza hemengo publikora zabaltzeko saiakera egiten ari direla .

Beraz honekin zer esan nahi du zinegotzi arduradunak, soilik gaztelerazko eta nazioarteko merkatura bideratutako feria bat dela? Ez al daude euskal programatzaileak eta euskal konpainiak? Feria honetan euskaraz soilik antzeztzen duten antzezlanak egotea beharrezkoa ikusten dugu eta merkatura salto egiteko aukera ematea ere.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dFeria programatutako euskarazko antzezlan kopurua handitzea eta euskarazko antzezlanei merkatura salto egiteko aukera balia dezala.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dFeria programatzen diren antzezlanetan euskarazko azpigituluak jartzeko aukera azter dezan.

Donostian, 2025eko martxoaren 20an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia